

Puritanoak gara

Xabier Mikel
ERREKONDO

Espainiako Gobernuak kerik gabeko eremu gehiago ezarriko ditu. Lege aurreproiektua prestatzen ari da, eta hilabete batzuetan indarrean sartzen denean, erretzea debekatuko da bus markesinetan, eskola eta unibertsitateetako patioetan, tabernatako terrazetan, diskoteketan eta festa gunetan. Zigarroaren keak kalte egiten dio osasunari, baina herri-tarrak gero eta debeku hertsia goekin hezteko joerak ez ote gaitu zeharo puritanoak bihurtzen?

Ke artetik ere uler dezaket norbanakoen eta kolektiboen eskubideak zaindu egin behar direla, baina nago kontzientzia puritana ezartzen dela.

Kerik gabeko lobbyak lixibatan igurtzi nahi ditu bizi-eremu guztiak, agian erretzaileak leku barik geratu eta beren ketan ito daitezen, edo ito aurretik damutu eta ez-erretzaile bihurtu daitezen.

Nago, hainbeste debeku baino, hobe genukeela zentzuarekin gehiago jakatu, ze eskubideak babestearen aitzakian lobby puritano-puristak garai ilunetara itzularazi nahi gaituzte moral zintzo eta garbia ezarri eta heresia sutan errez.

Aurrerantz ote goaz...

Niri erretzea gustatu egiten zait, zer esanik ez post-koitala... Xigarroa prestatzen hasi aurretik, pentsatzen hasi orduko ari naiz salibatzen eta senti-

tzen gastronomia ariketa natural berran, plazerez blai.

Salatuko naute nikotinak heldu naue-lako, salatuko naute alkoholak heldu nauelako, baina bizitzak eskaintzen dizkigun bizioetatik oraindik nahi dudana-ri heltzeko askatasuna dut. Adibidez, La Faraona Bierzoko ardor aparta edateko aurre-fasean, bitartean eta ondoren sentitzen dudana plazer adierazi ezina luze gozatzea, eta salatuko naute alkohol madarikatuak hereje bilakatu nauela-eta. Herejeak sutara eta, alkohola moralaren aurka doanez, botilak estraza-paperezko poltsatara kondanatu-ko dituzte.

Vade retro kea eta alkohola! •

Txikien garaipen batzuk

Asier Aiestaran

Aste pare bat pasa dira Euskaraldia amaitu zenetik eta balorazio desberdinak irakurri eta entzun ditut. Nire kasuan onartu behar dut aurrenekoak eragin zizkidana ilusioa eta kuriositatea apaltzen joan direla, eta deserosotasun puntu bat agertzen joan dela. Lehendik ere egunerokoan estres linguistikoa ezaguna dugunontzat, tuerkari beste buelta bat ematea suposatzen duelako.

Pare bat adibide sinple, hobeto ulertzeko. Euskaraz badakien baina hizkuntza horretan naturaltasuna falta duen lagunarekin harremana: gazteleraz dena da barrea, txantxa, adarjotzea; euskaraz, ez. Hor daukazu aho-bizi txapa

paparrean eta hor ari zara laugarren egunerako erdara bizi-bizian. Edo hita-noa erabiltzeko txapa jarri duen inguruko beste pertsona hori parean agertu zaizunean. Zuri bost ordu iruditu zaizkizun bi minutu iraun dituzue hika hitz egiten, eta zuen artean ohikoa ez den isiltasuna luzatzen hasi denean esperimendua bertan behera uztea erabaki duzue. Bitartean, kontzientziaren deabru-txoa hortxe, zure sorbalda ferekatzen.

Hala ere, ez dezala inork pentsa hau antolatzaileen kontrako kritika bat denik. Kontrara, *chapeau* Euskaraldia eta *chapeau* herriak bere hizkuntzaren eta bere etorkizunaren alde egiten dituen beste hainbat keinu txiki, dena aldatuko

duen urrats handiaren esperoan gelditzea ez delako alternatiba sinesgarria.

Kirol munduan, esaterako, bi gertaera esanguratsu izan ditugu egunotan. Zesta-puntan, Euskal Selektzioa Nazioarteko Federazioak antolatutako lehiaketa ofizial batean jokatzeko ikusi dugu, EAEko kirolariarekin soilik aritu arren. Eta surfean, Donostian egiteko zen Europako Junior proba azkenean ez da puntuagarria izango eta israeldarrik gabe ospatu-ko da herritarren presioari esker.

Lorpen txikiak, arazoak errotik konponduko ez dituztenak, eta egoera deserosoak, hautu bat egin behar delako. Baina handiak deseroso sentiaraztea ere bada txikiaren garaipen bat. •